# Denbora-

## 1 Puzzlea

Txorizo ogitartekoa da Markelen gustukoa. Argazki honetan ere txorizo ogitartekoarekin ageri da. Irudiari hainbat zati kendu dizkiogu. Osatuko al duzu Markelen argazkia?









## 2 Hitz zuzenaren bila

Eskolako lan guztiak azkenerako ez uzteko, idazlanak egiten hasi da Iker. Ez daki, ordea, hitz hauek nola idazten diren. Lagunduko al diozu?







## 3 Aurkitu irudian

Hondartzara joateko tramankuluen artean ezin da flotagailua falta. Hondartzan denetarikoak ikusi ditu Zuhaitzek. Hiru mota berdinak ziren.

Erantzunak: **1.-** 1-d, 2-e, 3-h, 4-i, 5-f, 6-c, 7-g, 8-b, 9-a.
**2.-** Mairu, dohakabe, urrikaldu, hondoratze, alproja.
**3.-** a-k, b-h, f-e. **4.-** c. **5.-** Xabier Amuriza, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Amets Arzallus.




## 4 Itzala

Maierrek margolari izan nahi du. Hona hemen haren margo potoaren marrazkia. Itzal hauetatik zein da Maierren margoena?

## 5 Sagu jakintsua

Plazarik plaza ibiltzen dira bertsolariak udan. Ezagutzen al dituzu? Izena dagokion abizenarekin elkartuz gero, bertsolari ezagunaren izena osatuko duzu.






## Eskua lotuta

Lagunaren eskua bilatzea da joko honen gako nagusia. Gai izango al zinateke laguna non den asmatzeko begiak itxita eta argibiderik jaso gabe?

**1** Jokalari bat zutik jarriko da, besoa gorantz jaso eta eskua zabalduko du. Eskua behar bezala zabalduko du, hau da, hatzak batetik bestera ongi bereizita.

**2** Haren parean eta distantzia jakin batera, beste jokalari bat jarriko da zutik. Begiak itxiko ditu. Azken horrek ere besoa gorantz luzatuko du, eta eskua zabalduko du.

**3** Zutik zegoen jokalariarengana joan, eta bien eskuak lotzea edo elkartzea izango da bigarren jokalariaren zeregina. Lehen jokalariak geldi-geldirik eta ixilik egon behar du.

**4** Jokalariak oso gaztetxoak badira, lehen jokalariak argibideak eman ditzake, bigarren jokalaria gidatzeko.

**5** Eskuak batu ostean, partida berria hasteko moduan dira jokalariak.

**6** Jokorako bi lagun baino gehiago elkartuz gero, lagunaren eskua zeintzuk topatuko lehen joka daiteke.≤≤≤≤